



Fantasia murgildurik

XABIER ETXANIZ ERLE 2023ko apirilaren 30a



Zarauzko Udalak antolaturiko Lizardi sariak bi urtean behin hurrei zuzendutako liburu bat saritzen du. Iaz Yolanda Arrietak idatzitako ipuinak eskuratu zuen saria eta, alde horretatik, epaimahaiaren bermearekin aurkezten zaigu.

Liburura hurbiltzean deigarria egiten da edizioa. Enrique Morenteren ilustrazioak fantasiosoak dira, kolore pasteletan eta irakurle txikiei bideratuak. Testua, berriz, hitz-jokoz beterik ageri zaigu. Liburu hasieran agertzen den aurkibidetik barneko testuraino (zerotik hamazazpira doazen atalak denak errimaz eginak: *Zero, mundua ero eta Bat: sagu parrat-etik Hamazazpi: hazi, bizi, ikasi-raino*).

Mimi eta Loa ahizpa bikiak dira ipuineko protagonista nagusiak Mari Gonagorriekin batera. Biek plazan saguaren ohar bat ikusten dute; ezin du lanean jarraitu eta ez du esne-hortzik edo kika gehiagorik jasoko. Horrek bikien harridura sortarazten du, baina berehala iristen da zalgurdi batean Mari Gonagarri kikak jasotzera eta opariak egitera (“Gona eta garrez, ni beti gorri, Eguzki ala euri, ni beti ongi! Kikak jaso eta hortzak opari, zer nahi duzun hura ekarri!”). Mari Gonagorriren etxera doaz ahizpak eta han ezagutuko dute honen mundu magikoa; nahien lurraldea, nahien errota... baita nahi bakoitzari dagokion kemen-bonba ere.

Fantasia, jolasa, hitz-jokoak eta irudimena ageri zaizkigu Arrietaren istorioan. Hau, gainera, hemezortzi atal laburretan banaturik dago, bizpahiru orrikoak gehienak, eta elkarrizketa ugariak eta Morenteren irudi handiek ere laguntzen dute irakurketan.

Azkar eta arin irakurtzen den ipuina dugu, alde horretatik, Lizardi saria eskuratu duen obra hau. Ipuin entretenigarria eta irudimentsua. Agian koloreen gehiegizko erabilera egon daiteke hitz batzuetan, baina gerta daiteke ere horixe izatea haurren gustukoa. Edozein modutan, hitzekin jolasteko liburua dugu, poetikara ere hurbiltzeko modukoa... fantasiaz eta munduaren ezagutzaz, agian filosofia puntu batekin ari garen bitartean.